

On Antonio Arzac

¡ILL DA!

¡Miñtasunezko malkuak zaizkit
isurtzen begiyetatik,
jeta nola ez, bazindutan nik
maite biyotzen erditik?
Zure oroitzaz ez naiz aztuko,
¡agur... lur triste ontatik!
Zu ere nitzaz gogoratuko
al zera zeru ortatik.

FELIPE KASAL ETA OTEGI.

¡NEGARRA!

On Antonio Arzac

¡O! Euskeraren Aita maitia,
ta jakinduriz askarra,
ondatuba da giroz zijuan
izkuntz doayen indarra,
kupitasunez limur mendiyak
daukate oiñda kankarra,
zelai muntuak lertu ta estal nai
beko ertzeko ibarra,
malkoz bezela errekak gañez
ibayak urme leyarra,
Gernikatikan Aritzak «agur»
egiten dizu diarra,

alde denetan nabaitutzenda
 tristetasungo astarra,
 guztiya pena ta naigabia
 gogor sufritu biarra
 galdu dalako Ama Euskeraren
 lagun da Maisu gallarra
 eriyotzatik ekarri dezu
 Euskal-Erriko negarra..!

JOSÉ GAMBOA.

On Antonio Arzac

¡ILL DA!!

¡Ill zera? es dakit!,
 bizi? uste det nik..,
 beti, biziko naiz ni,
 zutzat oroiturik.

Nork, daki, zergatik zu,
 juan zeran mundutik?
 benturaz.. negar asko
 emen ikusirik,
 juanzera Jauna gana
 erregutu nairik.....
 laguntza eskatutzen
 lur maitea gatik....
 emen bezela, beti,
 lanian zerutik.

.....

¡Zenbat lan egin dezu,
 euskal erria gatik!!

JOSÉ OLAIZOLA.